2022ko uztailaren 18ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Sabine Etcheverry, Chantal Echevertz, Anne Marie Darguy, Maité Oxarango, Virginie Sabaloue, Samuel Biscay, Patrick Barneche, Fred Hernandez, Philippe Mongabure, Hervé Parachou, Ramuntxo Oteiza, Arño Gastambide

Bilkurara ezin etorria jakinarazi zutenak: Kattalin Duhalde, Karine Perez, Koxe Barbier

1. Herriko hilerrietako hilobien prezioak

2021ean Herriko Etxeak hilobiak eraiki zituen herriko hilarrietan: 3-4 lekuko bi hilobi badira saltzeko.

Obren kostaprezioa (Herriko Etxeak kudeatu obrak barne) 4 800 €-koa da nonbait han. Proposatu da sal prezioa 2 500 €-tan finkatzea hilobi bakoitz.

Herriko Kontseiluak onartu du.

2. Suteen Kontrako Kanpoko Defentsarako Herriko Eskemaren gehigarria

Oroitarazi da Herriko Kontseiluak 2019an hitzeman zuela suteen kontrako kanpoko defentsa plana plantan ezartzea.

2020an plan horren apailatzen hasi zen Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoaren gerizan, eta lan hori geldirik egon da ez dagozkigun arrazoiengatik.

Aldi berean, Suteen Kontrako Kanpoko Defentsarako Departamendu Araudia berrikusi da, eta horren ondorioz Suteen Kontrako Kanpoko Defentsarako Herriko Eskema berritu.

Elementu berri horiek kontuan hartu behar dira 2019ko azaroaren 12an izenpetu hitzarmenaren gehigarria finkatzeko.

Espero dugu gomendioak laster bururatuko direla, Herriko Kontseiluak interes handia baitu ekintza horietarako, ikus bestela aurrekontuan ezartzen dugun urteko zenbatekoa. Lana laster berriz abiatuko dugu Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoarekin, eta ondorioak behar lituzke ukan.

Herriko Kontseiluak onartu du.

3. Bazterrera utziak diren kontzesioen berreskuratzea

Herriko Kontseiluari oroitarazi zaio hilerriak behar bezala kudeatzeko asmoz, abandonatua den hilobi baten berreskuratzeko prozedura bat abiatu zela 2019an Marie LAVIE andereari 1929ko apirilaren 15ean eman zitzaion betiereko hilobi kontzesioaren kontra.

Prozedura bukatua da orain, eta auzapezak Herriko Kontseiluari proposatu dio orduko aktaren irakurtzea, hilobia bazterrera utzia zela segurtatzen zuena.

Proposatu da kontzesioa behin betiko Dithurbide jaunari ematea.

Herriko Kontseiluak onartu du.

4. Beltzagitearen zaharberritzea: aitzin proiektuaren ontza ematea.

2021ko azaroan obralaria hautatu ondoan, berritze dosierraren ikertzea behar bezala aitzina doa. Diagnostikoak egin dira (betoiaren, amiantoaren eta termiten ikerketa) eta uste ez ziren arazoak eta kostuak agertu dira.

Herriko kontseilariei eta Herriko Etxetik kanpoko batzordeari dosier osoa esplikatu eta eman zaie finantza-estimazio batekin.

Frederic Hernandezek proiektua aurkeztu du Power Point bidez, elementu guziekin.
Oroitarazi da eraikin berrian bizitegi bat izanen dela eta hiru gela paramedikuntzako profesionalendako, eta etxe beherean haurtzain-etxe bat errezibitzeko mentura bada.

Obrek 835 000 € (BEZa gabe) kostako dutela estimatu da, gehi ordainsariak, guti gora behera % 13koak. Proiektu horren alor energetikoari kasu eginen zaio: panel fotovoltaikoak ezarriko dira.

Auzapezak erran du zaila zela finantzak zehazki aurreikustea, eta bereziki, Departamenduaren laguntza ukaiteko hautatu beharreko aukeren artean. Obrak hasiko dira ukanen ditugun hitzarmenen arabera.

Herriko Kontseiluak aitzin-proiektuaren alde bozkatu du eta baimena eman du eraikitze baimena aurkezteko (etxe aitzinaren koloreak aldatu beharko dira).

5. Ordokia harrobiaren ustiaketa agiria

Oroitarazi zaio Herriko Kontseiluari Sarako harrobien sozietateak pegmatita harrobia ustiatzen duela eta ere hondakin geldoen biltzeko muntadura Donoztirin, Aiherran eta Abarratia-Ordokian. Leku horietarako badira baimena ematen duten prefetura erabakiak Ingurumena Babesteko Sailkatu Instalazioen karietara.

Ustiatzaileak nahi du hondakin geldoen biltzeko muntadura zabaldu lehengo harrobiaren parte batean, lehengo hondakinen gunea berritu eta oraindik goiti eremu ttipiago batean atera harria. Jabe diren auzoekin eta laborariekin bildu da ustiatzailea.

Aktibitate horien egiteko deklarazioak egin behar dira eta baimenak ukan. Sozietateak aurkeztu duen harrobiaren antolatze proiektuari buruz eta gune berria erabiltzeko proposamenei buruz iritzia eman behar dugu.

Herriko Kontseiluak baimena eman du ingurumenaren babesteko muntadura sailkatuei buruzko hitzarmena izenpetzeko, araudiaren arabera.

6. Gainerako gaiak:

Herri lursailak eraikuntzarako egokitzea, prozedura eta ondoko datak
Antolatzeko bi baimenen ikerketa bururatzen ari da, egokitzapen batzuk beharrezkoak izanen dira eta hitzorduak beharko dira, bereziki SDEPArekin.
Obretarako eskaintza-deialdiaren prozedura kasik abiatu dezakegu (irail hastapenean), eta honen bidez obren hastapena planifikatzen ahalko dugu eta zatien behin betiko prezioak ere.
Zatien esleitzeko araudia bozkatu beharko da ondoko Herriko Kontseiluan, baita ere esleipenen egutegia.
Interesatuak diren herritarrek Herriko Etxean jakinaraz dezakete, eta lehentasunez jakinean atxikiko dira.

Lurren erostea : zenbait argibide

B 1412 lursaila: Dosierra bururatua da. Erosteko lehentasunarengatik jabeak bere lurra ez du gehiago salgai, eta Euskal Herriko LTEP berriz harekin harremanetan jarri zen lur hori onez onean erosteko. Jakinarazten dizuet Euskal Herriko LTEP hitzarmen batera heldu dela jabearekin eta deliberatu duela. Salmenta prezioa 220 000 €-koa da (notario agirien gastuak gabe), eta zenbatekoa udan baieztatuko da. Euskal Herriko LTEPk ontasun horren gibelatze baliabidea bermatuko du Herriko Etxearen izenean, 6-8 urtez.

B 1419 lursaila: Euskal Herriko LTEPk bere lehentasunez erosteko eskubidea erabili du gure ordez, guk hala galdeginik, prezioa aldaturik (hots, 100.000,00 €). Lehentasunez erosteko erabakia parteei jakinarazi zaie 2022ko maiatzaren 9an, justizia kanpoko agiriaren bidez. Jabeak hiru posibilitate bazituen: proposatu prezioa onartzea, lurra salmentatik kentzea edo justiziak prezioa finkatzea galdegitea, eta azken aterabidea du hautatu.
Jadanik aipatu bezala, berriz errepikatzen dugu nahi dugula lursail horrek eta ondokoak (B1418) osatzen duten lurra proiektu orokor gisa hartu berantago kolektibitateak antolaketa-operazio bat eramateko bertan. Beharrik balitz, oroitarazten dugu Herriko Etxeak eremu hori bere HTHP berrian UB gune gisa sailkatu duela, eta trinkotu behar dela saneamendu kolektiboa handik iragaten baita. Herriko Etxeak zinez nahi du gune hori trinkotu, lurren erabilpena arrazionalizatzeko, herriaren barreiatzea mugatzeko, eraikuntza berriak hutsuneetan egiteko, hori dena tokiko galdeari ihardetsiz. Herriak lur estrategia hori jarraikitzen du, LTEPk eramana.
Gaur egun, B1418 lursailaren jabearen mezu elektroniko bat errezibitu dugu lursaila onez onean saltzea proposatzeko.
Herriko Kontseiluak estimatu du proposamena sartzen dela finkatu zen mugan, eta prozedura hasteko baimena eman du. LTEPri mandatua eman dio horren egiteko, eta Euskal Hirigune Elkargoari jakinarazi dio.

Arberoako ortziraleak
Abiatu da ortzirale guziez herriz herri iraganen den animazioa. Aiherran uztailaren 22an iraganen da eta agorrilaren 19an. Aihertar guzien beha gaude bi egun horietan.

Herriko Etxeko obrak: Mementoan geldituak dira aluminiozko leihoen hornitzaileak ezin izan baitu bere lana burutu. Kezkatuak gara, udan beti dena konplikatuago baita.

Uztailaren 23a: Bakegileak
Tokika bide zirkulazioa blokatua izan liteke, eta Euskal Herriko biztanleei jakinarazi zaie.

Agorrilaren 6ko quad ateraldia: iaz bezala, quad rallya iraganen da herriko lurren ondotik. Baimenak galdeginak izan dira (ONF) eta normalki egoiliarrak jakinean atxiki dira. Kasu egin

Larrazkeneko merkatua: 2022ko urriaren 1ean iraganen da, iaz bezalakoa izanen da, baina elkarteak gabe.

Bilkura bururatu da 22:00etan